

GATAZKA

Gehienetan, gatazka gauza negatibotzat hartu ohi da; saihestu beharreko arazo edo ezbehar baten sinonimoa da. Izan ere, gatazka konpontzeko normalean erabiltzen diren metodoek ondorio suntsitzaileak izaten dituzte.

Hala eta guztiz ere, gatazka ez da biolentziaren baliokidea. Aitzitik, pertsonen gizarte-bizitzarako ezinbesteko eta oinarritzko elementua da. Ezin dugu ahaztu pertsonak elkarrekin erlazionatzen diren izakiak garela; eta erlazio hori berez gatazkatsua izaten da, harremanetan izaera desberdinak nahasten direlako. Gatazka desberdintasunetik eta nortasunaren garapenerako behar den giza harremanetik bereiztezina da. Zentzu horretan, gatazka ez da berez negatiboa edo positiboa; gatazka konpontzeko modua da negatiboa edo positiboa dena.

Horregatik, hezitzaileok pertsona gatazkatsuen aldeko apustua egiten dugu; hau da, beste pertsona batzuekin bizi eta erlazionatzen direnen aldeko apustua. Gatazkan hezi behar dugu (geure burua barne), harremanetan; bizi ditugun gatazkak antzematen eta haiei aurre egiten ikasi behar dugu; gatazken arrazoiak aztertu behar ditugu, eta pertsona gisa heldu ahal izateko konponbide egokiak aurkitu.

Badakigu hori egitea korrontez kontra joatea dela; orokorrean, gizarteak eta guk geuk gatazkei konponbide txarrak aurkitzen dizkiegu. Horrela hezi gaituzte. Hala ere, hezitzaileak garen neurrian, gauzak beste modu batera egin daitezkeela uste dugu; eta horregatik da hain garrantzitsua bake hezkuntza, gatazkak ebazteko hezkuntza.